

KANALAK

Taldea: kroketak

Idea: Gure taldeak euskal tradizioa sustatzeko baserri bat ipintzea erabaki du aterpetxe modura. Egonaldiaren truke, ohi dena baino diru kopuru txikiagoa ordainduko dute. Izan ere, bezeroek baserriko lanak egin beharko dituzte: baratza landu, uzta bildu, abereak elikatu...

Gure zerbitzua bezeroengana helarazteko eta haiekin harremanetan jartzeko, erabiliko ditugun bideak desberdinak izango dira bezero-segmentuaren arabera. Halaber, gure webgunean egongo da gurekin harremanetan jartzeko aukera desberdinak edota bestela, aterpetxera etorri ahal izango da erreserba egitera.

Webgunean egongo diren kontaktuak honakoak dira: telefono zenbakia, posta elektronikoa, instagram kontua... Dena den, ulertzen dugu adinean aurrera egiten ari diren bezero guztiek ez dituztela sare-sozialak oso ongi menperatuko. Horregatik, gure telefono zenbakira hots egiten duen ororekin harremandu gaitezke betiere ordu egokia bada. Bestalde, gure bezeroekin harreman zuzena izatea gustatzen zaigu eta guk ere, nahiago izaten dugu telefono edo g-mail bitartez harremandu. Edonola ere, bide guztiak izango dira erabilgarriak eta al bait azkarren erantzuten ahaleginduko gara.